

Anjel Lertxundiren "Etxeko hautsa" irakurriko dute Donostiako Liburutegi Nagusiko literatur solasaldian

Donostiako liburutegien sareko bazkideek eta Donostia Kultura erakundeko kideek, maileguan eskatu ditzakete solasaldietan irakurriko diren liburuak.

DONOSTIA - Anjel Lertxundi idazle oriotararren 'Etxeko hautsa' liburua aztertuko da urriaren 17an Donostiako Konstituzio Plazako Udal Liburutegi zaharreko literatur solasaldian, Donostia Kulturak jakinarazi duenez.

Iñigo Aranbarriren gidaritzapean antolatzen den egitarau honetako saio guztiak edonorentzat irekiak eta doakoak dira, eta arratsaldeko 19:30ean hasi ohi dira. Baldintza bakarra da aldez aurretik irakurtzea aukeratua izan den liburua.

Horretaz gainera, Donostiako liburutegien sareko bazkideek eta Donostia Kultura erakundeko kideek, maileguan eskatu ditzakete solasaldietan irakurriko diren liburuak.